



IRIZPEN ZK.: D16-047

ZENBAIT LAGUNTZA ETA DIRU-LAGUNTZA KUDEATZEKO, MANKOMUNITATE BATI DATUAK LAGATZEAREN GAINEKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Udal batek irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskaera idazkian honakoa adierazten du, besteak beste:

“[...] Udala [...] Udal Elkarteko kidea da, bi administrazioek, jarduera eraginkorragoa bilatu nahiean hitzarmena sinatu nahi dute, diru-laguntzen kudeaketa kasuetan Mankomunitateak zuzenean onuradunen datuak egiaztatu ditzan.

Hitzarmen hau, Udal Elkarteko 5 herriekin sinatuko zen.

Laguntza eskatzeko garaian, onuradun izan nahi duenak bere adostasuna emango du (datuak egiaztatu ahal izateko).

Hitzarmenaren zirriborroa eta Udal honek biztanleen erroldako artxibategiaren inskribapen agiria igortzen dizuegu.

Galderak hauek dira: [...]ko udalak artxiboa inskribatzeko xedapen orokorra aldatu behar du Mankomunitateak erroldako datuak zuzenean kontsultatu ahal izateko? Hau da, aurreikusitako lagapenen artean INE bakarrik aipatu ezezik INE, EUSTAK eta beste Herri Administrazioak jaso?

Galderak hauek dira: [...]ko udalak artxiboa inskribatzeko xedapen orokorra aldatu behar du Mankomunitateak erroldako datuak zuzenean kontsultatu ahal izateko? Hau da, aurreikusitako lagapenen artean INE bakarrik aipatu ezezik INE, EUSTAK eta beste Herri Administrazioak jaso?”.

Kontsulta idazkiari atxiki zaio lankidetza hitzarmenaren zirriborroa.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, araudi hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.



KONTUAN HARTZEKOAK

I

Agentziak aztertu behar duen gaia da ea [...] Udal Elkarteak eta bertako kide diren bost udaletako bakoitzak [...] sinatuko duten lankidetzaren hitzarmena dela-eta aurreikusten diren datu tratamenduak egokiak diren.

Hasteko, ahaleginduko gara udalak egindako galderei erantzuten, eta gero atxikitako hitzarmen-zirriborroa aztertuko dugu.

Beraz, galderak aipatuko ditugu. Lehengoak dio ea [...]ko Udalak artxiboa inskribatzeko xedapen orokorra aldatu behar duen Mankomunitateak eroldako datuak zuzenean kontsultatu ahal izateko. Gure ustez fitxategia sortzen duen xedapen orokorra ez da aldatu behar, ez behintzat arrazoi horregatik. Datu tratamenduen berezitasun bat da datu tratamendua egin ahal izateko ukituen adostasuna edo lege oinarri bat egon behar dela. Eta fitxategia sortzeko egintzak ez du datu tratamendurik legitimatzen. Kasu honetan garrantzitsuena da zehaztea ea Mankomunitateak kontsultatu ditzakeen ala ez Erroldako datuak, eta erantzuna baietz bada, ea zein baldintzen arabera kontsultatu ditzakeen.

Erroldako datuak lagatzea baimentzen duen legea Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea da (16.3 artikulua):

“3. Erroldako datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko interesdunaren adostasunik gabe, datu horiek nahitaezkoak izan behar dira administrazio horiek euren eskumenez baliatu ahal izateko, eta bakar-bakarrik lagako zaizkie helbidearen edo egoitzaren gaineko datuak ezinbestekoak badira. Datu horiek sekretu estatistikopean dauden estatistika ofizialak egiteko ere erabili ahal izango dira, beti ere Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean eta arlo honetan eskumena duten autonomia erkidegoetako estatistikari buruzko legeetan xedatutakoa kontuan hartuta”.

Artikulu horrek esan nahi du zilegi dela Erroldako datuak adostasunik gabe lagatzea, baldin eta administrazio publikoen artean lagatzen badira, eta, helbidearen edo egoitzaren datua garrantzitsua bada, lagapen-hartzaileak bere eskumen bat gauzatzeko.

Kasu honetan datu lagatzea administrazio publikoen artean gertatzen da, eta, gainera, onuradunen helbideari buruzko informazioa funtsezkoa da laguntza behar bezala kudeatzeko.

Beraz, argi dago badagoela datuak lagatzeko lege gaikuntza. Baina, gogorarazi behar dugu, adostasunaz eta lege gaikuntzaz gain, nahitaez bete behar dela datuen kalitateri buruzko printzipioa (DBLOren 4. artikuluan dago xedatuta). Printzipio horren arabera, bakar-bakarrik tratatu ahal dira datu-bilketaren helburua betetzeko egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak diren datuak. Horregatik, kontsulta honek duen alderdirik garrantzitsuena da datuak kontsultatzeko zein baldintza bete behar diren. Horretaz jardungo dugu orain.

II

Hasteko, baina, hitzarmena aztertu baino lehen, ustez argi dagoen kontu bat ekarri behar dugu hona: hitzarmenak ez du berez datu-tratamendua legitimatzen. Hitzarmenak egiten duena da parte hartzen duten aldean borondate adierazpena jaso, besterik ez.



Edukiari erreparatzen badiogu, hitzarmenaren zirriborroak dio diru-laguntza deialdi horietan Udal Elkarteak egiaztatu behar duela diru-laguntzak jaso nahi dituzten pertsonak betetzen dituztela kasu bakoitzean bete beharreko araudiak beharrezkotzat jotzen dituen eskakizun guztiak (horietako bat da erroldatuta egotea). Era berean, zera dio: *“kontuan izanda elkarri laguntzea Administrazio Publikoen arteko harremanen printzipio gidaria izan behar dela eta, era berean, horien jarduna eraginkortasunean eta herritarrekiko zerbitzuan oinarritu behar dela, egokitzen joan dute bi aldeek informazio lagapena arautzea. Ildo horretatik, informazioa, ahal dela, bitarteko informatikoak edo telematikoak erabiliz emango da, eta lagapen hori egingo da administrazioak dituen bere datu pertsonalei dagokienez herritarrari aitortzen zaizkion eskubide eta bermeak babestuz”*.

Hitzarmenaren helburua lehenengo klausulan dago jasota: *“Udalaren eta Udal Elkartearen arteko lankidetzaren arautzea, Udal Elkarteak Udalarengandik erroldako informazioa eta Udalarekiko zerga betebeharrei buruzko informazioa eskuratu ahal dezan, Udal Elkarteak ematen dituen laguntza eta diru laguntzak kudeatzeko behar duen heinean”*.

Era berean, hitzarmenak dio bitarteko telematikoak erabiliko dituztela datuak lagatzeko, hau da, DBLOk finkatzen dituen segurtasun, integritate eta konfidentziasun bermeak errespetatuz egingo dela datu tratamendua. Gure ustez, hortxe dago gakoa: informazioa zer nolako baldintzetan eskuratuko den; hau da, datuak datuen kalitatearen printzipioa betez eskuratzeko neurriak ezarri beharko direlako. Eta horrek esan nahi du bakar-bakarrik ahalko dela eskuratu mankomunitateak, laguntzak kudeatzeko, nahitaez behar duen informazioa, eta ezin izango dela modu indiskriminatuan sartu udal fitxategietan. Esandako hori oso ondo azaltzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 31. gogoeten atalak: *“agintaritza publikoen komunikazio eskabideak idatziz aurkeztu behar dira beti, arrazoituta eta noizean behin, eta ezingo dira izan fitxategi oso bati buruzkoak eta horren ondorioz ezingo dira hainbat fitxategi interkonektatu”*.

Bestalde, sarbide telematikoa konfiguratu da mankomunitatekoak ez diren hirugarrenak ez sartzeko moduan; eta horrela bete egingo da DBLOren 9.1 artikuluan xedatutako datuen segurtasunari buruzko printzipioa.

“1. Fitxategiaren arduraduna eta, hala badagokio, tratamendu-eragilea behartuta daudela datu pertsonalak babestuta daudela ziurtatzera eta datu horiek ez direla aldatuko eta galduko, eta baimendu gabeko tratamendurik edo atzipenik ez dela egingo bermatzen dituzten neurri teknikoak eta antolaketakoak hartzeraz, teknologiaren egoera, bildutako datuen ezaugarriak eta datu horiek dauzkaten arriskuak kontuan hartuta, eta berdin diola arriskuak gizakiaren jardueretatik edo ingurune fisiko eta naturaletik etorri”.

Argi utzita datuen kalitateari eta segurtasunari printzipioak bete egin beharko direla, hurrengo urratsa da hitzarmena aztertzea; eta, hasteko, laugarren klausulan (*“Aplikatu beharreko printzipioak”*) xedatutakoa azpimarratu behar dugu: *“Ondoko printzipio eta arauak izan behar ditu kontuan hitzarmen honen babespean egindako informazio lagapen orok:*

...

5. Emandako datuen titularraren berariazko baimena jaso beharko du Udal Elkarteak aldeztu aurretik”.

Geroago, bosgarren klausulak honakoa dio: *“Udal Elkarteak ez die eskatuko interesdunei erroldari edo zergei buruzko informaziorik banan-banan aurkez dezaten, ezta beren*



errola edo zergen aitorpenen jatorrizko dokumentu, kopia edo ziurtagiririk ere. Udal Elkarteak konpromisoa hartzen du informazio hori zuzenean Udalari eskatzeko, hitzarmen honetan ezarritakoari jarraiki”.

Klausula horiek aztertu ondoren, pentsa dezakegu hitzarmenak herritarren honako eskubide hau islatu edo jaso nahi duela: administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiriak ez aurkezteko eskubidea, baina baldin eta agiri eta dokumentuen titularrek horretarako adostasuna adierazi badute.

Biztanleen Udal Errola dela eta, hasieran esan dugu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 artikulua finkatzen dituen betekizunak betetzen direnez, ez dela beharrezkoa ukituen adostasuna. Bestalde, laguntzak eskuratzeko eskatzen diren zerga-datuak kontsultatzea zilegi izango da, ukituek adostasuna adierazi beharko dutelako aldez aurretik. Izan ere, hitzarmenak dio mankomunitateak aldez aurretik eskatuko diela.

Ukituen adostasuna eskuratutakoan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan jasotako aurreikuspena bete beharko da:

“2. Interesdunak ez daude beharturik administrazioaren batek egina den agiriaren kopiak ekartzera, nahiz agiri horiek prozeduran aurkeztea nahitaezkoa izan nahiz aukerakoa izan, betiere interesdunak onespina adierazia badio agiri horiek kontsultatzeari edo ateratzeari. Kontsultatzea edo ateratzea interesdunek baimendua delako presuntzioa egingo da, ez badute prozeduran kontrakotasun espresua adierazi edo aplikatzekoa den lege bereziak ez badu agintzen adostasun espresua adierazi beharra dagoela.

Interesdunaren kontrakotasunik ezean, administrazio publikoek elektronikoki atera beharko dituzte agiriak, beren sare korporatiboen bitartez edo datu-bitartekaritzarako plataformei edo hartarako prestatutako beste sistema elektronikoren bati kontsulta eginez”.

Beraz, ukituaren adostasuna lortu ondoren, aurkeztu behar den dokumentazioa ez aurkezteko eskubidea aktibatuko da. Kasu honetan zerga-datuei buruz ari gara. Baina, ukituen adostasuna nola eskuratu behar den argitzeko, esan behar dugu 2016/679 (EB) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak honela definitzen duela adostasuna zer den 4.11 artikuluan: *“interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalanztarik gabe, zehatz eta arrazoitua, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena”*. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak eskatzen duen “egintza positibo argiak” ukatu egiten du presuntziozko adostasunaren birtualtasuna. Beraz, kontuan izan behar da Erregelamendu Orokorra indarrean sartzen denetik aurrera (2018ko maiatzaren 25a) ez duela balioko 4.11 artikuluko baldintzak betetzen ez duten eran lortutako adostasunak.

Azkenik, azpimarratu behar dugu lortzen den informazioa bakar-bakarrik erabili ahal izango dela tratamendua legitimatzen duten helburuetarako eta ezin izango dela erabili bestelako helburuetarako; bai eta hitzarmenaren babesean informazio pertsonala eskuratzeko duten guztiek sekretu gorde beharra bete beharko dutela nahitaez.

Amaitzeko, eta irizpen honetan kontuan hartu diren alderdi guztiak ikusita, esan behar dugu Agentziara helarazi duten hitzarmen zirriborroa ondo ezkontzen dela datu pertsonalak babesteko oinarrizko araudiarekin.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abenduaren 21a